

Kultura

Leopoldo Zugazak Sabino Arana saria jaso du kultur arloan urteetan egindako lanarengatik > 11



Sasoian eta gogotsu

Jubilatutakoan, Durangaldeko hainbat nagusik jotzen dute nagusien elkarteetako saltsara. Zahartze aktiboan sinesten duten pertsonak dira, eta sasoiari sentitzen dira gauza berriak ikasteko, bidaiatzeko eta zaletasunak lantzeko. Lagunak egiteko ere bai, zergatik ez. Bizipozez dabilta elkartegintzan. > 2-3



Lehior Elorriaga

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK




Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

hitz
liburudenda

#gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



HELDUENTZAT
IRTEN HIZKUNTZAREN
ARMAIRUTIK
Ferran Suay &
Gemma Sanginés (2015)



UME ETA GAZTEENTZAT
100 KONTU ONDO
EZAGUTZEKO ZIENTZIA
Askoren artean (2015)



MUSIKA
AURRI GARA
Isaki Gardenak (2015)

Durango > 6

Autoenplegu Plana eztabaida politikoaren erdigunean

Abadiño > 4

Zelaietako eskolako aterpearen segurtasuna zalantzan jarri dute

Durangaldea > 7

Durangaldea inauterietako egitarauaz gozatzeko prest

Atxondo > 5

Frontoia itxi eta berrizteko obrak hasi dituzte

► Herririk herri

“Lehen, gauzak derrigortuta egiten genituen; orain, guk aukeratzen dugu zer egin”

Durangaldean, bizi-bizirik dago zahartze aktiboaren aldeko mugimendua. Elkarteetan antolatuta, ikasten eta gozaten dabilta.



Ezkerretik eskumara: Juan Angel Aiartzaguena, Jose Mari Macias, Sabine Villa, Jose Mari Zamakona, Edurne Agirre eta Anastasio Badiola. Lehior Elorriaga

► **DURANGALDEA** Amaia Ugalde Soldatapeko lanegunak amaitutakoan, borondatezko lanera eta elkarteetako saltsara jotzen dute Durangaldeko hainbat nagusik. Jubilatutako aurretik, aktiboak ziren, eta orain, aktibo jarraitzen dute. Bizipozez dabilta batzarririk batzar, hitzaldietara joaten, irteerak egiten, antzerkia egiten... Inoiz ez delako berandu, eta orain dutelako astia; gauza berriak ikasi, eta lagun berriak egiteko sasoia da.

Nagusien elkarteetan dabilta sei lagunekin izan gara mahai baten bueltan: Edurne Agirre eta Jose Mari Macias Abadiñoko Zelaietako nagusien elkarteetan daude, Juan Angel Aiartzaguena Berrizkoan, eta

Anastasio Badiola Iurretakoan. Eskualdeko Bizidun elkarteak kide dira, gainera, Sabine Villa, Aiartzaguena eta Macias. Jose Mari Zamakona durangarra Gora ta Gora antzerki taldeko fundatzaile eta kidea da.

Izaeraz, beti izan dira nahiko aktiboak. Edurne Agirrek aitak esaten zizkionak gogoratzen ditu: “Esaten zidan beti nenbela soldata bako beharretan. Beti debaldeko beharrak egiten!” Orain ere badabil yogan, gimnasia, jubilatuen elkarteetan, koruan... “Lehenengo egunean, 9 urteko lobak esan zidan: ‘Amama, zergatik sartzen zara hainbeste lekutan? Gugaz noiz egongo zara?’” Horretarako ere hartzen du astia. Jose Mari Maciasek ar-

gi dauka: “Egunak, agian, lehen baino beteago dauzkagu, baina desberdintasun batekin; lehen, derrigortuta egiten genituen gauzak, eta orain, guk aukeratzen dugu zer egin”.

Jubilatu bi belaunaldi
Jende askok nagusien elkarteetako tabernan, karta jokoan irudikatzen ditu jubilatutakoak. Hori baino gehiago dela diote erreportajeko protagonistek. Juan Angel Aiartzaguenari, esaterako, mendira joatea gustatu izan zaio beti, eta horrelako irteeren antolaketan ibiltzen da gustura. Berrizko elkarteetan ibiltzeaz gain, Bizidun elkarteetan ere badabil, eta han, barikuro egiten dituzte irteerak. Anastasio Badiolak horretarako

15
nagusien elkarte daude Durangaldean

osasuna behar dela nabarmendu du: “Bizidunen jende gaztea zaudete; gure elkarteetan, 85 urte dauzkagu batezbeste”. Iurretan, hala ere, egiten dituzte ekintzak, eta martxoan sagardotegira doaz, adibidez.

Bizidun Amankomunazgo-ko Esperientzia Institututik jaio zen elkarteak da. *Gaurko munduan bizitzeko gakoak* izeneko ikastaroa amaitu eta gero,

formaziorako gogoz geratu zen talde batek sortu zuen, duela lau urte. Gaur egun, 105 bazkide dira, eta hitzaldiak eta mendi ibilbideak antolatzen dituzte, as-tero. *Whatsapp*-ean sei edo zazpi talde dituztela azaldu du Macias, arlo bakoitzeko talde bat.

Antzerkia gozamen

Jose Mari Zamakona nagusien Gora ta Gora antzerki taldeko sortzaileetako bat da, Anunciación Navasegaz batera. 1995ean estreinatu zuten lehen obra, eta antzerkikoa esperientzia itzela dela dio: “Asko gozaten dugu, eta bururako oso ona da testuak buruz ikastea”. Taldean, hasieran idazten eta irakurtzen ez zekien jendea zegoela gogoratu

anboto ►
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko otsailaren 5a
14. urtea - 619. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña eta
Paul Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



du Zamakonak: “Hasieran, grabatuta ikasten zituzten testuak, eta gero, apurka-apurka ikasi dute irakurtzen”. Orain, obra berri bat prestatzen dabilta. Zamakonak, gainera, *abalariekin* bitxiak egiteko tailerrak ere ematen ditu. Abadiñon talde bat dauka, eta parkinsona duen pertsona batengana ere joaten da: “Pultsua kontrolatzen laguntzen dio”.

Jose Mari Macias:
“Parte-hartzaile huts baino, antolatzaile izan gura dugu; gauzak guk geuk egitea”

Lagunak egiten

Adin batetik aurrera, gauza berriak ikasi eta lagun berriak egin daitezkeela argi dute erreportajeko lagunak. Jose Mari Maciasen berbetan, “jende nagusiarentzat, funtsezkoak dira harreman sozialak; etxean geldituz gero, akabo”. Sabine Villa-

rentzat Bizidun garrantzitsua izan da lagunak egiteko. Inglaterra 40 urte bizi izan eta gero, 2009an bueltatu zen Elorriora Villa: “Nire koadrila sakabanututa zegoen, eta senarrak eta biok ez geneukan lagunik. Orain, Bizidunekin lagun pilo bat egin dugu, eta asko gabiltza ikasten”.

Norbera antolatzaile

“Jendeak ikusi behar du jubilatutaz ez dela kartetan egitea bakarrik”, esan du Juan Angel Aiartzaguenak. Edurne Agirrek Abadiñoko adibidea eman du: “Adin guztietako pertsonak gaude, oso interes desberdinekin”. Aurten, esaterako, zinezikloa eta informatika ikastaroa antolatu dituzte. Jose Mari Maciasen ustez, norbere interesetik abiatuta ekintza asko egin ditzakete pertsona nagusiek: “Parte-hartzaile huts baino, antolatzaile izan gura dugu; ez dugu nahi gu eraman gaitzaten gauzak egitera, guk geuk egin gura dituguz gauzak”

talde honetara egokitu behar da; beraien zahartzaroa aktiboa izan dadin, herri lagungarri bat eratu behar dugu. Beste alde batetik, orokorrean, gaurko nagusiek osasun, eta maila ekonomiko eta kultural hobeak dute, eta beste begi batzuekin begiratzen diote zahartzaroari; ikasteko, bidaiatzeko eta zaletasunak lantzeko garaia da eurentzat.

Zer nolako garrantzia du nagusiek euren artean elkar-tzeak eta ekintzak antolatzek?

Garrantzi itzela. Horrela, modu autonomoan elkarrekin antolatuta, eurentzat egokiak diren ekimenak antolatu ahal ditzuztelako. Protagonistak haiek izanik, gu erremintak emateko eta laguntzeko gaude.

Zer gaik pizten die interesa?

Gaurko nagusien aniztasuna itzela da, eta interes arloak, denak: formakuntza, partaidetza, osasunari dagozkion gaiak, ekonomia, teknologia berriak, solidaritatea, immigrazioa. Gizartean eta munduan gertatutako denak sortzen die interesa.

Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?


Jendeagaz egunero daukadan harremana eta nagusientzat zerbitzuak eta ikastaroak antolatzeko aukera. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dela ikusteak poza ematen dit, eta nagusien bizi-esperientziagaz asko ikasten dut.



Bizidun elkarteok Axpera joan ziren pasa den barikuan, Txitxiburduntzia egitera. Bizidun



Gora ta Gora antzerki taldeko kideak.



“Talde-lanean bestea errespetatzen eta entzuten ikasten duzu”

Corane Gorospe durangarra, 23 urte, Lehen Hezkuntza gradua ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitateak eta Hezkuntza Fakultatean.

• **Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua, eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEan?**

Bertan gradua ikasi duten eza-gun zein lagunak izan ditut eta beraien bitartez, Unibertsitatea gertutik ezagutzeko parada izan nuen. Jada espektatiba onak buruan bueltaka neuzkela, batxilergoan geundela fakultateari buruzko hitzaldi bat ematera etorri zitzaizkigun, eta hau izan zen azken bultzadaxoa.

• **Nola definituko zenuke ikasteko metodologia**

Ikasteko era hau, norberaren esparru desberdinak arakatzeko edota lantzeko aukera ematen dizula uste dut; bai ikasleen esperientziatik abiatuta eta baita ere bakoitzaren gaitasun praktikotik abiatuta. Gainera, metodo eratzaile honek, hezkuntzak barneratzen dituen estrategia desberdinak ezagutzera, miaztera eta arakatzera era-

maten zaitu. Azken finean, nire aburuz, guztiaren xedea bada materia bakoitzaren kompetentziak hedatzera bultzatzea.

• **Egindako proiektuen bat azalduko diguzu?**

Aurten, adibidez, Sorguneak ikertegitik etorri izan den proposamen bati aukera eman diogu, Euskara Batzordearekin bat eginez. Kulturgintza zein euskararen erabilera kontzientzia areagotzeko Performance bat egitea egokia zela iruditu zitzaigun, eraginkorra eta motibagarria baitzen. Azken batean, era honetako ekimenek jendearengan eragin handia dute eta aberasgarria da ikasmen sormena sustatzeko.

• **Praktikaldiak non eta zertaz ari zaren egiten kontatuko diguzu?**

Unibertsitatean ditugun hiru urteetako praktikaldiei dago kienez, hirurak Durangaldean



egin ditut, baina denak Eskola desberdinetan. Bakoitzaren metodologia ikusteko aukerak, benetan, nik nire etorkizuneko haurrei zein eratarira irakatsi nahi dieran jakitera eramaten nautelako.

• **Zer moduz moldatzen zarete talde-lanean?**

Oso ondo! Gustuko dut lanak taldeetan egiteko aukera izatea bakarka baino. Alde batetik, besteen ikuspuntuak ezagutzeko egokieragatik, entzuten ikasten duzulako, elkarbanatzen, elkar errespetatzen, ideia desberdinak lantzen, gogoetara eramaten zaituen galderak planteatzen, eta baita ere kritikak modu konstruktibo batean adierazi zein hartu ditzazkezulako.

Eskolako aterpearen segurtasuna zalantzan dagoela dio EH Bilduk

Zelaietako aterpearen segurtasuna zalantzan jartzen dute hiru txostenek



EH Bilduk egin ditu publiko, asteon, aterpeak oinarritzko segurtasun neurriak ez dituela betetzen dioten txostenak.

ABADIÑO I.E.

EH Bilduko zinegotziek kritika-tu dutenez, oinarritzko segurtasun neurriak betetzen dituela adierazten duen ziurtagiririk barik dago zabalik, irailetik, Zelaietako eskolako aterpea. Eta hiru txostenen arabera, “oinarritzko segurtasun neurriak” bete barik. Aterpearen egitura sendotu edo aldatzea gomendatzen dute txosten horiek.

Obraren espedientea eskatuta eskuratu ahal izan duten dokumentazioa eskolako zuzendaritzari zein guraso elkarteari ere helarazi dietela azaldu dute EH Bilduko zinegotziek: “Infor-

mazioa eskuartean izanik, hemendik aurrera hartu beharreko neurriak erabaki ditzaten”.

“Ez dago arriskurik”

Aterpea jausteko ez dagoela “ezelako arriskurik”, dio, aldiz, Jose Luis Navarro alkateak. Azpimarratu duenez, EH Bilduk aipatzen dituen txostenek ere, balizko elurte handi baten kasuan baino ez dute arriskua ikusten. Elurte handirik izan ezean, aterpea erabiltzeko ezelako arazorik ez dagoela dio Navarrok. EH Bilduk egotzi dion “informazio ezkututzerik” ez dela egon ere esan du Abadiño-

ko alkateak. “Eskolako obraren eraikitzaileagaz zeuden arazozen berri udaleko batzordeetan jaso dute”. Navarroren berbetan, informazioa zabaltzeko beharrik ez dute ikusi, “alarma” sortzeko baino ez bailuke balioko.

Alkateak esan duenez, EH Bilduk gaia plazaratu duen momentuan, obra amaierako ziurtagiria eman ez duen enpresari espedientea zabaltzeko prozesuan zegoen Abadiño Udalak. Aterpearen segurtasunaren inguruko beste txosten tekniko bat eskatuko duela ere aurreratu du alkateak, eta, horren arabera erabakiak hartu.

Udalaren salaketa, erreka isurketagatik

Zumelegin gasolioa isuri zuten, astelehenean

ELORRIO M.O.

Astelehen arratsaldean gasolioa isuri zuten Zumelegi errekan, eta udalak salaketa ipiniko du erantzulea topatu guran. Udaltzaingoaren datuen arabera, hiru ordu iraun zuen isuriak, eta minutuko 60 litro gasolio isurtzeraino heldu ziren, unerik gorenean.

Suhiltzaileak eta uraren azterketa egiteko Ipar-Urako teknikariak hurreratu ziren bertara, baina ez zuten lortu

isuria nondik zetorren zehazki jakitea. Iluntzean zehar, erreka inguruetan nabaria izan zen usaina.

Idoia Buruaga alkatea Durangoko ertzaintzaren komisaldegiagaz kontaktuan ipini zen. “Onartezina da herriko erreka zabortezi modura erabiltzea, eta udalak eskura dituen baliabide guztiak martxan jarriko ditu horren erantzulea topatzeko”, azaldu du Elorrioko alkateak.

Liburutegian wifi sistema ipiniko dute

Wifiagaz, 15 lagun sartu ahalko dira Interneten

ELORRIO M.O.

Elorrioko liburutegian wifi sistema ezarriko dute Interneten sartu ahal izateko. Hamabost lagunaldi berean konektatzeko aukera eskainiko du zerbitzuak. “Uste dugu wifiaren erabilera ikastera edo kontsultak egitera bideratu beharko litzatekeela; beraz, momentuz, nahikoa dela deritzogu”, esan du Maitane Lopez zinegotziak. Gainera, kable bidezko kone-

xioak Iturri kultur etxeko areto guztietan daudela azaldu du.

Lopezek esan du hutsune bat zegoela: “Liburutegiko erabiltzaileek aspalditik helarazten zuten hutsune bati egin nahi izan diogu aurre”.

Gasturik ez

Aparteko gasturik ez egiteko asmoagaz, udalaren jabetzan zegoen router bat erabiliko dute liburutegian.

Tarteka euripean, milaka lagun bildu dira, aurten ere, San Blasetan

San Blas laneguna izan den beste urte batzuetan baino bisitari gehiago, aurten

ABADIÑO I.E.

Otsailaren 3ko San Blas eguna eguraldi bustiagaz hasi zen arren, eta egun osoan zehar ere tarteka euria egin zuen arren, jende askok ez du aurten ere kale egin, eta milaka lagun hurreratu dira Zelaietako nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza azokan erosketak egin, eta Abadiño egunpasa egitera.

Abadiño Udaleko gobernu taldeak azpimarratu duenez, San Blas laneguna izan den beste urte batzuetan baino jende gehiago ibili da, aurten. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, “goizeko zaparraden ondoren, jende gutxiago etorriko zela uste genuen, baina ez da horrela izan”. Bisitari kopuruagaz “oso pozik” daudela azpimarratu du Jose Luis Navarro alkateak.

Ehundik gora izan dira San Blas eguneko nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza azokan prestatu dituzten erakusmahaiak, eta ganadu onenaren lehiaketa ere berreskuratu dute,

gainera, aurten. Lau sari banatu dituzte; Karlos Ibarrodok jaso du abere sortarik onenaren saria, Ibon Lasuenek behirik onenarena, eta Aitor Bilbaok zezen eta txahalik onenarenak.



Ganadu lehiaketa berreskuratu dute, aurten, bi urte egin gabe egon eta gero.

Eguaztena Abadiño Udalaren San Blas eguneko erakustaldian: beso bakarragaz, 124 aldiz altxatu dute 100 kiloko kopa zilindrikoa, 10 minutuko jasoaldian, biak txandaka arituta.

Ipuinen inguruan gogoeta egin, eta kontakizunak entzuteko aukera

ZALDIBAR I.E.

Asteon egin dute, Zaldibarko liburutegiari urte hasieran ipuinen eta emozioen inguruan antolatutako ikastaroaren bigarren saioa. Gurasoei zuzenduriko tailerra da, eta Juan Carlos Alonso psikologoak gidatzen ditu saioak. Otsailaren 10ean egingo dute ikastaroko hirugarren eta azken saioa. Umeen hezkuntza emozionalerako onuragarriak izan daitezkeen kalitatezko ipuinak identifikatzen ikasten dute ikastaroko partaideek.

Udal liburutegiak antolatuta, baita, ipuin kontalaritza saioa izango da otsaila amaitzeko, Zaldibarko liburutegian. Ipuin musikatuak eskainiko dituzte, otsailaren 26an, 17:30ean, udal liburutegian.



Lanen ostean frontoiaren aurrealdea zelan geratuko den erakusten duen irudia. Atxondoko Udala

Frontoia itxi eta berriztatzeko lanak hasi zituzten, astelehenean

Lanen ondorioz, Apatako pilotalekua ez da erabilgarri egongo lau bat hiletan

ATXONDO Joseba Derteano Astelehenean hasi zituzten pilotalekua ixteko eta berriztatzeko lanak. Lau bat hile iraungo dute, eta denbora horretan frontoia ezingo da erabili. Bitartean, erabiltzaileek — Atxondo pilota eskolako gazteek, esaterako — Axpeko pilotalekua erabili beharko dute.

Helburu nagusia pilotalekua ixtea da hotzari eta, batez ere, zikinari aurre egiteko. Horretarako, metakrilatozko panelak erabiliko dituzte, eta egitura horri herriko toponimia eta auzo izenen serigrafiak gehituko dizkiete gainetik, estekikoki do-

toretzeko eta nortasun propioa emateko.

Bestelako lanak

Frontoia ixteaz gainera, beste hainbat lan ere egingo dituzte. Barrutik zein kanpotik, pilotalekua pintatu egingo dute, eta teulatuko itoginak konponduko

Frontoia metakrilatozko panelekin itxiko dute eta gainetik herri eta auzo izenekin apainduko dute

dituzte, esaterako. Frontoiari argitasun handiagoa ere eman gura diote, eta egun-argia gehiago aprobetxatzeko, zeharrargi panel gehiago jarriko dituzte teulatuan.

Frontoiaren sarrerako atepan, biltegi bat ere egingo dute, jaietarako mahai eta jarlekuak bertan gorde, eta eskurago egon daitezkeen.

Lanek 113.000 euroko —BEZ barne— aurrekontua dute. Aurreko legegintzaldiko gobernu taldeak landu zuen proiektuaren zatirik handiena. Gaur egungoak azken detaileak gehitu, eta esleitu egin ditu.

Batzorde berria sortu dute udal gaiak lantzeko

Udalbatzarrak eta batzordea txandatu egingo dituzte

ATXONDO J.D.

Legegintzaldi honen hasieran, bostetik batera murriztu zuten udaleko batzorde kopurua. Legeak agintzen duen Kontu Batzordeari eutsi, eta gainerakoak kendu egin zituzten, ez zutelako erabilerarik eta ez zirela eraginkorrak argudiatuta. Horien ordez, herri batzarrak gehitu zituzten.

Baina, hurrengo udalbatzarrean, EAJko Gorka Garate kexatu egin zen, gai askori buruz ez zirelako udalbatzarrera arte enteratzen. Aurretik, euren informatzeko eskatu zioten alkateari. David Cobos alkateak udaletzeko atea beti irekita dagoela esan zien, eta udal kontuen berri gura zutenean kontatzeko prest zegoela bertaritzen baziren. Orduan, gaia bere ho-

rretan geratu zen. Harrezkero, berbetan ibili dira, eta horren ondorioa da asteleheneko udalbatzarrean eratu zuten batzorde informatibo berria. Udalbatzarrak osatzen duten alderdi biek gaiak aurretik “eztabaidatzeko, lantzeko eta borobiltzeko” gunea bihurtu dadila gura dute, David Cobosek atzo azaldu zenez.

Aurrerantzean, udalbatzarrak eta batzorde berria txandatu egingo dituzte hileko lehenengo astelehenean, 19:00etan. Beraz, udalbatzarrak hilean behin beharrean, bi hilarik behin egingo dute. Izan ere, sarritan, “ez da gai askorik egoten udalbatzarretan eztabaidatzeko”. Beharra dagoenetarako ezohiko udalbatzarrak deitu daitezkeela gogoratu dute.



Datorren martxoan batzordea egingo dute, eta apirilean udalbatzarrak.

Nagusien egoitzara sartzeko igogailua eskatu dute

BERRIZ A.U.

Jubilatuaren etxeko sarbidea hobetzeko, anbulatorio zaharretik igogailua eraikitzea proposatu dute udal inbertsioen zati bat nora bideratu erabakitzeko batzarretan. Igogailuak 82.500 euroko aurrekontua izango luke, eta auzokideekin berba egin eta

gero, erabakiko dute proiektua zelan gauzatu.

Igogailuaren ekimenaz gain, espaloietan laban ez egiteko tratamendua ematea ere onartu dute, 8.000 euroko aurrekontuagaz. Hirugarren egitasmorik bozkatuena futbol zelaiko taberna ingurua estaltzeko pergola

da, eta, horretarako, 22.000 euro beharko dira. Guztira, foroetatik bideratzeko 100.000 euroak gaudituz direnez, pergola egiteko itxaron egingo dute.

Auzoetan, bestalde, 50.000 euro non inbertitu erabaki behar zuten, eta auzoetan ganadua errepidera ez irteteko langa kanadiarra jartzea onartu dute. Bilbatuatik Sarriako eskola zaharrerako asfalto ere konponduko dute, aldapa hori labankorra delako.

35 lagun batu dira nagusien taldeak deitutako batzarrean

GARAI M.O.

Joan zen domekan, Otea-Loran elkarte gastronomikoan ezohiko batzarra egin zuten San Migel nagusien elkarteak, eta, guztira, 35 lagun batu ziren.

Estatutuak aldatzea izan zen landutako gaia. Izan ere, Bizkaiko araudi orokorra aldatuta, aurrerantzean, bazkideza egin

Hurrengo batzarra apirilean egingo dute, urtero egin ohi duten batzar orokorra, hain zuzen ere

gura dutenek 60 urtetik gora eduki beharko dituzte, eta ez 50etik gora, orain arte lez. Beraz, aldaketa egitera derrigortuta egon dira elkarteak.

Hurrengo batzarra apirilean egingo dute, urtero egin ohi duten batzar orokorra, hain zuzen ere. Gainera, hurrengo irteera kulturala nora egin ere batzar horretan erabakiko dute, arduradunek azaldu dutenaren arabera.

Suhiltzaileek ura hartzeko guneak prest, auzoetan

Harguneak koordinatuen arabera sailkatu dituzte

MAÑARIA M.O.

Sute posibleen aurrean lana errazteko asmoz, neurri garrantzitsua hartu dute Mañariako udalak eta suhiltzaileek. Auzoetan ura hartzeko guneak ipini dituzte, suhiltzaileek beharra dutenean erabili ahal izateko. Gainera, koordinatu geografikoaren arabera sailkatu dituzte, beharra suertatzean, harguneen bila auzoetan barrena galduta ibiltzeko beharrik ez izateko. Horri esker, berehala jakingo dute sutea gertatu den lekutik gertuen dagoen ur hargunea zein den.

dela lehen herria horrelako inizatiba bat hartzen duena. Lehenik, udala ipini zen suhiltzaileekin hartu-emanetan, eta harguneak non ezarri ahal ote ziren galdetu ziren. Hauek emandako informazioen arabera egokitu dituzte udalak harguneak.

Berehala jakingo dute sutea gertatu den lekutik gertuen dagoen ur hargunea zein den

36 hargune

Mañaria, inizatiba hartzen Endika Jaio alkateak azaldu duenez, udalarena izan da inizatiba. Bere arabera, suhiltzaileek esan diote Mañaria izan

Mañariako Udaleko arduradunek azaldu dutenaren arabera, egitasmo honi eskerrak, guztira 36 ur hargune daude herri osoan.

Autoenplegurako planak alderdien polemika zabaldu du

EH Bildu eta Ahal Duguren arabera, Behargintza ez dute kontuan hartu



EH Bildu eta Ahal Dugu alderdietakoak ezkerrean, eta EAJ eta PSE-EEkoak eskuman, Aldundiko ordezkariagaz.



DURANGO Markel Onaindia Bizkaiko Foru Aldundiak autoenplegurako programa sustatu du Durangaldean, langabezian epe luzean daudenei lan merkatuan sartzeko aukera bat eskaintzeko asmoz. Guztira, 75 laguntza egon dira herritarren eskura, eta gaur amaitu da izena emateko epea. Norberak bere negozioa sortzeko informazioa eta laguntza ekonomikoa jasoko dute, datozen hileetan zehar.

Martitzenean egin zuten programaren aurkezpena, Durangoko udaletxean. Aitziber Irigoras alkatea, Pilar Ríos alkateordea eta Alfonso García aldundiko enplegu zuzendaria egon ziren bertan. Lehenik, tailerrak garatuko dituzte, 60 orduko eskaintzagaz. Gero, negozio planak diseinatzea izango da zeregina. Azkenik, enpresa altan emateko pausoak emango

dituzte. Diru-laguntzak ere jasoko dituzte. Guztia, bost hiletan.

Irigorasen berbetan, udalarentzat, “lehentasuna duen helburu estrategikoa da enplegua sortzea”. Ríosek gogoratu du Durangon 1.743 langabe daudela, eta, bere ustez, “datuek erakusten duten lankidetzaren instituzionala beharrezkoa da”.

“Bikoizketa”

Baina hain justu, alderdi eta instituzioen arteko polemika eragin du planak. EH Bilduk eta Ahal Duguk prentsaurrekoa eman zuten, atzo. Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek (EHB) azaldu zuen ez zutela gonbidatu Aldundiaren eta udalen arteko aurkezpen batzar batera, eta gero, planaren aurkezpena EAJ eta PSE-EEren prentsaurrekoagaz egin izana ere salatu du: “Programa hau

jartzeko, ez dute kontuan hartu Durangaldeko Behargintza, eta, ondorioz, ezta eskualdeko beharrik zeintzuk diren ere”. Gainera, programa Aldundiaren menpeko DEMA agentziatik kudeatuko denez, “bikoizketa” kasu bat dela uste du, eta Behargintza “edukiz husteko” saiakera bat ere bai. Neskutz Rodríguez Ahal-Duguko batzarkideak EAJ eta PSE-EEren gobernu tratua salatu du: “Herritarren kalterako da, euren alderdi interesak aurretik jartzen dituztelako”.

Edozelan ere, Durango eta Abadiño izan ezik, gainerako herriak Amankomunazgoagaz batu dira, “proiektua martxan jartzea errazteko”.

Durangon, martitzenean, hamar zeuden izena emanda, eta Behargintzan, atzo, bakarra. Aurreikusitako 75 laguntzetatik urrun, beraz.

Agorria sozialistaren kontratazioa kritikatu dute oposizioko taldeek

Agorriak alkatetzan jardungo du; hauteskundeetan ez zuen eserlekurik lortu

DURANGO M.O.

Idoia Agorria sozialista udal gobernuaren administrazio lanetarako kontratatu dutela ohartarazi du EH Bilduk, eta kontratazio horren dekretua eta funtzioen fitxa publikatu ditu sare sozialetan.

Agorria zinegotzi izan da azken bi legegaldietan, baina, 2015eko hauteskundeetan, ez zuen eserlekua lortu. EH Bilduk publikatutakoaren arabera, alkatetzan lan egingo du; administrazioan, komunikazioan eta protokoloan, besteak beste.

Koalizioak dio ez duela betetzen profil profesionala, eta kontratazioaren oinarrian “irizpide politikoak” daudela dio: “Ez dugu zalantzan jartzen kontra-



IDOIA AGORRIA

tazioa legala denik, baina kontratazio mota hauek, etikoki, herritarrentzat iraingarriak direla deritzogu”.

“Kontrapartidak”

Herriaren Eskubideak ere bere jarrera erakutsi du sare sozialetan, eta bere ustez, “kazi-keen tankerako kolpea” izan da: “Gauzak egin diren modua salatzea beste biderik ez zaigu geratzen. Gehiengo absoluturik barik ezarri zen akordioaren ondorioak eta kontrapartidak ezagutzen gabiltza”.

EAJk eta PSE-EEK gobernu akordioa daukate legealdirako, 21etik 10 zinegotzigaz. Baina, PPrentzaren abstentzioa nahikoa dute proiektuak aurrera ateratzeko.

Gorka Frailerin alde, plataforma sortu dute

Gorka Fraile presoaren egoeraz kezkatuta, plataforma herritarra sortu dute, Durangon

DURANGO M.O.

Gorka Fraile preso politikoa durangarraren egoeraz kezkatuta, plataforma herritarra sortu dute Durangon, eta atzo egin zuten aurkezpen publikoa Andra Marian, ekitaldi batez. Fraileri ebakuntza egin zioten ekainean, minbiziari aurre egiteko, eta bera etxeratzeko nahia agertu dute plataformakoek. *Gorka Fraile aske eta bizirik, etxera orain!* goiburua zabaldu dute aurkezpena iragartzeko.

Fraile, “kezkatuta”

Frailek berak gutuna helarazi zuen duela aste batzuk, bere egoeraz zuzenean informatze-

Ebakuntza egin zioten, minbiziari aurre egiteko, eta bera etxeratzeko nahia agertu dute

ko. Kezka adierazi zuen: “Kezkatuta nago, mediku guztiek dioten bezala, minbizi birsortzeko aukera gehiegi dauzkadako, eta espetxean bizi ditugun egunerokotasuna, tentsioa,



GORKA FRAILE

urduritasuna, elikadura kaxkarra eta abar nire gaitzerako okerrena direlako”.

Zazpi hilabete

Gainera, medikuen jarraipen falta ere salatu zuen: “Zazpi hilabete pasatu dira ebakuntza egin zidatenetik, eta ez didate TAC ziztrin bat ere egin”.

Hala ere, animatuta ere badagoela azaldu zuen, hainbat herritarrek hileotan bere alde agertutako “mobilizazio, borroka eta konpromisoari esker”.

Carlos Barriok jaso du JAED elkartearen autoa

Iurretako Gaurisa kontzesionarioan jaso du saria

DURANGO P.B.

46 urteko Carlos Barrio durangarrak jaso du JAED elkartearen aurtengo lehen sariko Renault Clio autoa. Iurretako Gaurisa kontzesionarioan jaso ditu Renault Clio gorriaren giltzak.

Behar larrian dauden pertsonak laguntzeaz arduratzen den elkarteak kaleratu zituen 55.000 txarteletako 36.881 zenbakia izan zen lehenengo saritua. “Laguntzeko ekimenaz gain,

sari oso interesgarriak daude”, adierazi zuen irabazleak.

Sarituak ez zuen espero jokatzen sei txarteletako bat saritua izatea: “Okindegira jaitsi, eta saritutako zenbakien zerrendari argazkia atera nion. Gero, etxean begiratzerakoan, autoa nirea zela konturatu nintzen”.

Dena dela, irabazleak ez daki autoarekin zer egin. “Kotxea txikia da, eta auto handiak gusatzatzen zaizkit”, dio.



Renault Gaurisan jaso zuen autoa irabazleak

Inauteri giroaz gozatzeko aukera zabala Durangaldean

Surrandiak eta Perubele izango dira protagonista

DURANGALDEA J.G.

Inauterietarako egitarau oparoa prestatu dute Durangaldean. Egun hauetan, mozorro proposamen ugari izaten dira, horietako bat surrاندiena, jakina. Izan ere, Durangon, surrاندien eta hartzaren kalejira 18:00etan irtengo da, bihar, merkatu plazatik. 20:00etan, Durangoko dantzariak, Jaizale txistulari elkarteak eta Tabira musika bandak Andra Mariko elizpean jarri dute hitzordua. Otsailaren 9an, ostera, haur parkea jarriko dute Landako gunean, eta DJ Oihan Vegak gazte-txoentzako diskoteka girotuko du, Ezkurdin.

Elorrion, otsailaren 9an, umeen dantzak, jolasak eta animazioa izango dituzte, goizean, plazan. Arratsaldean, berriz, gazte parkea, Luhartzen erro-

meria eta txokolatada izango dira aukeran.

Atxondon, Gaztetxean jarri dute zita, otsailaren 9rako. Aurpegia margotzeko tailerra, tostada dastaketa, mozorro desfilea eta DJa izango dira.

Berrizen, gaur, mozorrotuta kalejiran irtengo dira. Erromeria ere izango dute. Bihar, koadrilen topaketa egingo dute, eta, ondoren, afari herrikoian bilduko dira. Gauerdian, mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Zornotzan, gaur bertan abiatuko dute inauterietako egitaraua Perubelerekin eta Udazken dultzainero taldeagaz. Enkore eta Itziarren Semeak taldeak Zelaietako parkeko karpan arituko dira. Bihar, Markeliñek *Zoo Zoom* ikuskizuna eskainiko du. Mozorro lehiaketaren ostean,



lazko inauterietan Durangon aterako argazkia.

Las Tea Party DJen txanda izango da. Otsailaren 9an, umeentzako diskoteka eta adinekoentzako mozorro lehiaketa antolatuko dituzte. Perubele karnabaletako pertsonaia kalejiran aterako dute, Zelaieta parkean hasita, eta txokolatada banatuko dute.

Mozorroa gertatzen lagunduko dute, Iurretan, maskara eta karatula tailerlean, otsailaren

5ean. Arratsaldean, aurpegi margoketa tailerra ere emango dute. Hurrengo egunetarako, bazkaria, erromeria, umeen ikuskizuna, mozorro lehiaketa eta txokolatada ere antolatuko dituzte.

Mallabian, otsailaren 6an, San Eskean irtengo dira baserririk baserri. Ondoren, mozorro erromeria egingo dute Gau

Argi taldeagaz. Otsailaren 9an, berriz, Kidam magoaren bisita izango dute. Ansorregik, Larrañagak eta Lutxurdiok arratsaldea alaituko dute, frontoian. Tartean, mozorro lehiaketako irabazleak aukeratuko dituzte.

Egitarau osoa agendan, 22. orrialdean.

Presoen etxeratzea eskatuko dute Elorrion, gaur, eta 20an, Badajozen

Urte bi bete dira, gaur, Arkaitz Bellon elorriarra Puertoko kartzelan hil zenetik

DURANGALDEA A.U. / M.O.

Puerto de Santa Mariako (Andaluzia, Espainia) kartzelan Arkaitz Bellon elorriarra hil zenetik bi urte bete dira, gaur. Urteurren horren harira, manifestazioa egingo dute gaur, Elorrion, 19:30ean, plazatik hasita. *Espetxe politika kriminalari stop* lelopean egingo dute, eta Belloren heriotzaz gain, duela 19 urte Alcalá Mecon (Madril, Espainia) hildako Jose Mari Aranzamendi *Katxue* ere izango dute

gogoan: “Hil zituen espetxe politika oraindik indarrean dirauen berbera da, hiltzailea eta kriminala”, esan dute deitzaileek.

20an, Badajozera martxa

Ez da presoen etxeratzea eskatzeko hurrengo egunetan egingo den mobilizazio bakarra izango. Izan ere, Ezker Abertzaleak kartzelatar martxak deitu ditu otsailaren 20rako, eta Durangaldetik Badajozera eta Puertora joateko deia egin dute. Eguazte-

nean, San Blas egunez, hainbat herritarrek deialdi hori babestu zuten, argazki bat aterata.

‘Abian’ prozesuaren baitan

Ezker Abertzalea *Abian* prozesuan murgilduta dago, eta presoek eztabaidan “behar bezala” parte hartu ahal izatea ere eskatuko dute martxetan. Orain arte entzute-fasean egon dira, eta eskualdeko 500 lagunek parte hartu dutela esan dute. Laster hasiko dira eztabaidak.



Ezker Abertzaleak deitutako martxak babestu dituzten herritarrek, eguaztenean, Abadiñon.

“Gastua mugatu eta zentzuz gastatzea” helburu aurrekontuan

Udalbatzarrak aho batez onartu ditu aurrekontuak

OTXANDIO J.D.

Joan zen eguneko udalbatzarrean, 2016ari dagozkion udal aurrekontuak onartu zituzten aho batez, EH Bildu —Gobernu Taldea— eta EAJren botoekin. 1.905.357 eurotako aurtengo zenbatekoa, iazkoa baino 116.000 euro (%5) apalagoa.

Oro har, “krisi garaian egingadako aurrekontuak dira, diru-laguntza eta aktibitate ekonomiko txikiko egoerak baldintzatu”, azaldu dute. Horregatik, aurrekontuetan “gastua mugatzen eta udalaren zorpetze apala ez handitzen” saiatu dira. Bide horretan, aurrekontuetan ez ezik urtean zehar lortu beharreko erronketan “zentzuz gatzatzen” saiaturiko dira.

Ohiko diru sarrerak (zer-gak, tasak, Udalkutxa...) “iazko maila berean mantentzea” aurreikusten dute. Zenbait tasa eta zergetan igoerak egin arren, baliabide gutxieneko hobariekin laguntzea aurreikusi dute, beraz, diru sarreretan efektu txikia izango duela uste dute: iazko aurrekontuekin alderatuta, %1 gutxiago. Ezohiko diru

sarrerak inbertsioetako diru-laguntzetatik datoz, batez ere, eta diru laguntzen portzentaia “mantentzea” itxaroten dute, nahiz inbertsio kopurua jaitzi. Bestalde, herriko partikularrek egindako lanetatik etorriko sarrerak “apalak” izan daitezke “kontestu ekonomiko zailak” eraginda. Oro har, ezohiko sarrerak %21 jaitzi daitezke.

Inbertsioak iaz baino %17 txikiagoak izango dira (547.719 euro) eta lehentasunak markatu dituzte: Margaola-Anteparaluzeta auzoetako ur sarearen konponketa, telekomunikazio sarea hobetzea (21.000 euro), herriko eskolako ingurutzaila eta leihoak berritzea (160.000 eta 70.000 euro, hurrenez hurren), estolderia sarea hobetzea, birziklapena bultzatzea (75.000 euro) eta kale argiteriaren efizientzia handitzeko neurriak hartzea (35.500), besteak beste.

Martxoa amaitu aurretik, kontuen likidazioa egingo dute, eta horko emaitzaren arabera inbertsio gehiago egitea aurreikusi daiteke ahalik beharizan gehienetara heltzeko.

Joan-etorri kopuru batetik gora, diru-laguntza gutxiago auzo-taxian

Urteko 50. joan-etorritik aurrera, garestiagoa izango da Auzotaxia erabiltzea

ZORNOTZA A.B.

Zornotzako auzo-taxiak 140 erabiltzaile ditu, eta bakoitzak, batez beste, 50-60 joan-etorri egiten ditu, urtero. Kopuru horren inguruan dabilzanek “arrazoizko erabilpena” egiten dute, eta zerbitzua “horientzat jarri zen martxan”, Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan. Gutxi batzuek, ordea, gehiegizko erabilpena ematen diotela uste dute. Horren aurrean, erabilera egokia indartzeko, diru-laguntzen sistema moldatu dute, eta bonoak sortu dituzte. Joan zen barikuko udalbatzarrean aho batez onartu zuten neurria.

Orain arte, erabiltzaileek beti prezio finko bakarria zuten joan-etorrietarako: 2 euro. Gai-

nerakoa, udalak ordaintzen zien taxistei. Ordenantza indarrean sartzen denean, urteko lehen 50 joan-etorriek oraingo prezio bera izango dute. Hortik gorakoei diru-laguntza murriztuko diete, eta, ondorioz, joan-etorriak garestitu egingo zaizkie.

Hori dena kudeatzeko, bonoak sortu dituzte. Bono horiek udaletxean eskuratu ahalko dira, eta horiek erabiliko dira taxistei ordaintzeko.

Udalak urte bakoitzeko, gehienez, 150 joan-etorri lagunduko ditu diruz. Aurreneko 50 joan-etorriek euro bi balioko dute, orain arte moduan; 51tik 100era artekoek 6 euro, eta 101etik 150era artekoek 8 euro. Bonoak hamarnaka eskuratu

ahalko dira. Hurrengo asteetan, taxistei zein erabiltzaileei aldaketaren berri jakinaraziko diete: zertan datzan eta zelan funtzionatuko duen.

Auzo-taxiak auzoak herriguneagaz lotzea du helburu nagusia; Zornotzako auzoen eta herrigunearen arteko koherentsia indartzeko sortu zuten. Sendagilearengana joateko eta erosketak egiteko, besteak beste. Horiek izango lirake arrazoizko erabilaren adibide bi. “Erabiltzaileen % 90ek auzo-taxiaren erabilpen oso egokia egiten du, eta jarrera bikaina erakusten du”, dio Agirrebeitiak, baina “gutxi batzuek ez dute erabiltzen zerbitzua sortu zen helburuetarako”.



Bost taxik osatzen duten auzo-taxi zerbitzua, asteleheneetik ostiralera.

Torturak jasandako zornotzarrek “berriro inoiz ez” aldarrikatu dute

Torturak salatu eta otsailaren 13ko ekintzen berri emateko agerraldia egin zuten

ZORNOTZA A.B.

Ezker abertzaleak antolatutako “Torturaren aurpegiak. Berriro inoiz ez” ekimenaren baitan, torturak jasan dituzten Zornotzako

hainbat pertsonen agerraldia egin zuten, joan zen zapatuan, Zelaieta parkean. Tortura pairatu duten lagun guztiek “justizia eta aitortza” merezi dutela, eta

horretarako, oraindik “ezezaguna den eta ezkutuan mantentzen den errealitatea” ezagutzea eta ezagutaraztea ezinbestekoa dela azpimarratu zuten. Esaterako, laster, 35 urte beteko dira Joxe Arregi Carabancheleko espetxeko ospitalean hil zela, 9 egunez Guardia Zibilaren eskuetan “basatiki torturatua” izan ondoren.

Otsailaren 13a torturaren kontrako eguna izango da Euskal Herrian, eta horren harira, Zornotzan egingo diren ekimenak aipatu zituzten. Otsailaren 10eko eguaztenean, 19:30ean, torturari buruzko hitzaldi bat egongo da Zelaieta Zentroko auditorioan. Otsailaren 12ko ostiralean, 19:30ean, kontzentrazioa egingo dute Erreferendumaren plazan.



Tortura jasan dutenen agerraldian aterako argazkia. ehbilduzornotza.eus

San Juan kaleko lanak epea baino lehen amaituta

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako anbulatorio berriaren inguruko urbanizazio lanak aurrera doaz, eta San Juan kalekoak —biribilgune berritik Gregorio Mendibilera arteko tartea— aurreikusitakoa baino hile eta erdi lehenago amaitu dituzte. Lanen artean, biribilgune berri bat egin dute.

Lasuenen lana

Lasuen enpresak burutu ditu lanak. Obretako langileek segurtasun neurrietan gabeziak zizutela eta LABek jarritako salaketaren harira, Andoni Agirrebeitiak Lasuenen lana defendatu zuen. Osalanek, Lan Ikuskaritzak zein udaleko teknikariek obretara egindako “ikuskatze denetara, langileek norbera babesteko ekipamenduak (NBE) betetzen zituzten”.

EH Bilduk ez ditu kobratuko azken plenoko dietak

ZORNOTZA J.D.

Orain astebete egindako udalbatzarra amaitu aurretik, Urko Lopez EH Bilduko zinegotziak udalbatzar horri zegozkion dietak ez zituztela kobratuko adierazi zuen. Udalbatzar laburra izan zela da arrazoiak: 13 minutu iraun zuen. Gai hori Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztaba-datzeko eskatu zuen: “Behar bada, kasuistika batzuk ezarri beharko lirake eta, ondoren, horren arabera jokatu”.

Andoni Agirrebeitia alkatearen ustez, gaia orokorrean baloratu beharra dago, eta ez udalbatzarren iraupenagatik bakarrik: “Uste dut batzordeetan egiten den lana garrantzitsutzat jo behar dugula. Udalbatzarretara adostasunekin heltzen bada, aurrean bategatik da. Ez gobernuarena bakarrik, baita oposizioarena ere”.

OTSAILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Jasone Osororen “12etan bermuta” liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” CDa.

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

SALTSAN KATERIN.
EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.

GAU-TU.
BURKO BISCOELASTIKOA
Burko biskoelastikoa 150 zm-ko oherako.

FORUM SPORT.
PULTSOMETROA
Polar FT1 modeloa eta uhala. Iragazgaitza.

URTARRILEKO IRABAZLEAK

- > **SALTSAN KATERIN.**
Gema Telletxea Kortabarria
- > **COLOR PLUS.**
Marian Bernaola Bengoetxea
- > **FORUM SPORT.**
Mikel Petite
- > **HITZ LIBURU-DENDA.**
Belen Oviedo Casado
- > **EROSKI.**
Piedad Uriarte Magunazelaia

Boluntariotza linguistikoa bultzatu dute etorkinak gizarteratzeko

‘Elkarrekin berbetan’ programa abiatu du udalak Gurutze Gorriagaz



Ibarretxe kultur etxean aurkeztu dute ‘Elkarrekin Berbetan’ programa, eta dagoeneko eman daiteke izena parte hartzeko.

IURRETA Aitziber Basauri Herrian gizarteratzeko gaintitu beharreko traba izan daiteke hizkuntza etorkinentzat. Hori aintzat hartuta, eta bertara egitea erraztu guran, ‘Elkarrekin berbetan’ programa abiatu dute Iurretan, Bizkaiko Gurutze Gorriagaz lankidetzan. Herrian 3.743 lagun daude erroladuta, eta horietatik %7,85 dira etorkinak. Hizkuntza tresna gisa baliatuz etorkinen gizarteratzea lagundu gura du egitasmoak.

Boluntariotza linguistikoa oinarritutakoa da ‘Elkarrekin berbetan’: hizkuntza hobetzeko interesa izanik, gaztelaniazko edo euskarazko gutxiengo eza gutza duten etorkinak, eta, gaz-

telaniaz edo euskaraz berba egiten duten bertoko herritarrak jarriko dituzte hartu-emanetan, elkarrekin hizkuntza era informal batean praktikatzeko. “Eskariaren arabera, euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko aukera bideratuko da”. Zorione Fundazuri zinegotziak azaldu duenez.

Hamar saio

Hamar asteko —gutxienez ordu bete egingo dute, astean— konpromisoa hartuko dute. Eta, boluntario zein ikasleekin batzartuko dira, jarraipena egiteko. Amaieran, esperientzia baloratuko dute. Bai hizkuntza ikasi gura dutenek bai horretan lagundu gura duten bolunta-

rioek badute jada egitasmoan izena emateko aukera.

Lehenengoz abiatu da ekimena, Iurretan, eta “erantzun ona” espero dute. Durangon hiru urte dira hasi zirela. ‘Hitz egidazu’ egitasmoan 60 bikote daude.

Eskoletan, zazpi urte dira ume etorkinentzat euskara erretortzua eskaintzen dela; eta, helduentzako hezkuntza iraunkorrerako zentroan ari dira Iurretako 23 etorkin. “Beste asko, baina, ez dira joaten. Horiei dago zuzenduta egitasmoa”. Otsailaren 11n, argibideak emateko hitzaldia izango da kultur etxean, 18:30ean. Gizarte Zerbitzuen bidez eta eskoletara joaz zabaldu gura dute egitasmoa.

Sahararentzat kaxa bete elikagai batu dute, aurten

IZURTZA J.D.

Aljeriako Tindufeko kanpamentuetan bizi diren sahararrei laguntzeko Herria elkarrekin bat egiten du, urtero, udalak. Aurten ere, elikagaiz eta lehen beharrezaneko produktuez beteriko kaxa bat bete dute herritarren ekarpenekin: “Aurten ere, izurtzarrek beharrezan daudenekiko solidaritatea erakutsi dute, eta hori pozgarria da” azpimarratu du Lorea Muñoz alkateak.

Zapatuan, Santa Ageda kantuan Mallabian

MALLABIA P.B.

Beste urte batez, Mendibil abesbatzakoak Santa eskean joango dira, baserriz baserri, larunbat honetan. 11:00etan ekingo diote herriko petriletik auzuneetatik zehar egingo duten ibilbideari. Berano, Berano Txiki, Arandoño, Longa eta Geria auzoetatik zehar ibiliko dira kantuan, egun osoan zehar. 19:00 ingururako bueltatuko dira herrira. Arratsaldean, herrian, Gaur Argi taldearekin erromeria egongo da gazteentzat.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



Pedestaletik

Oraindik harriduraz ikusten dot Ezker Abertzaleak daukan gaitasuna interesatzen jakeezan gaiak nahastu eta, intentzio osoz, isiltzen dabenagaz beste zeozer ulertzera emoteko. Zaharrak barri. Isiltasuna, bidelagun leial izan dabe gure Herriak azken 40 urteetan bizitako Historia tristean zehar. Baina ez dot hortik joko.

Gure Udalerriko Ezker Abertzalea, betiko lepotik burua, beste zinegotzien liberazioak gogor kritikatzeko ikusi dot eta, euren sasi-koherentziari men eginez, euren zinegotzi bat liberatzen ebela be ikusi dot. Autokritika izpirik? Ez. Liberatuen soldatak kritikatzeko ikusi ditut, zenbateko larregizkoak leporatuz eta, berehala, EH Bilduko zinegotzi bi liberazio bat partekatzen ikusi dot, zenbatekoari eutsiz. Kritikatzeko eben zenbatekoaren %97,1a “soilik” baino ez dabe kobratzen. Keinua aldatu barik, pedestaletik begiratzeko, euren nagusitasun moralaren izenean. Bestalde, euren bikotekidea dan Podemos dogu. Hain garbiak eta gardenak, Udaleko liberatuen soldatak erdira pasatzea proposatu eben, baina, egun, liberatu bi dituzte, eta horrenbeste kritikatu daben liberazioaren zenbateko osoa kobratu eta alkarregaz banatzen dabe. Kritika oinarritzko elementua da gizarte demokratikoetan, baina, etikari buruz berba egiteko, pedestalera igogailuan igotzea ez da nahikoa; zorionez, ibilbidea bestelakoa da.

DURANGALDEA ASTEON

Otxandion, maitasun erromantikoa zalantzan

OTXANDIO > Bagaizan talde feministak antolatuta, maitasun erromantikoaren eta bestelako harremanen inguruan jarduteko ikastaroa egingo dute, Otxandion. Otsailaren 20an eta 27an, hiru orduko saioak egingo dituzte, 10:30etik 13:30era. Parte hartzeko, otsailaren 12a baino lehen eman behar da izena, udaletxean.

Irigorasen jarreragaz “desengainatuta”

DURANGO > Joan zen eguenean Durango udalbatzarrean gertatutakoaren inguruko balorazioa egin du A-8ko bidesarien kontrako plataformak. EAJren mozio “alternatiboak” plataformaren aldarrikapenak “estaltzea” zuela helburu dio plataformak, eta Aitziber Irigoras alkatearen jarreragaz “desengainatuta” daudela.

Hitz liburu-dendak 40 urte bete ditu, asteen

DURANGO > Eguaztenean, otsailaren 3an bete dira 40 urte Durangoko Hitz liburu-denda zabaldu zutela. Gaur egun liburu-dendaren arduraduna den Gaizka Olabarrik eskerrak eman dizkie orain 40 urte “kulturaren aterpe hau sortu zutenei: Leopoldo Zugazari, Jesus Astigarragari eta Nekane Bereziartuari.

IRITZIA

Eskerrak ematen

Hamabi Harri elkarrekin eskerrak eman nahi dizkizue Auzorik Auzo ibilaldian bidelagun izan zintuztegun guztioi eta, era berean, barkamena eskatu ere, ez genizuelako eman merezi zenuten eta guk nahiko genukeen atentzio eta laguntza guztia, ibiltari kopuruak ezustean harrapatu gintuelako.

Bihoakizue, beraz, guzti-guztioi, gure barkamen eskari zintzoena eta gure esker on beroena.



Kepa Bengoa Madariaga, Hamabi Harri

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzirik artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Bego Caballero | Hontza Museoa Fundazioko langilea | Mañaria, 1972

“Mañarian hainbat gauza ditugu erakusteko, baina, ustiatu gabe”

Epe luzera begirako Turismoa Garatzeko Proiektua landu du Hontza Museoa Fundazioak, udalak eskatuta



> BERBAZ Aitziber Basauri
Premia eta baliabideen arabera gauzatuko den Turismoa Garatzeko Proiektua onartu du Mañariko Udalak. Hontza Museoa Fundazioko langile Bego Caballerok turismoa erakartzeko hainbat proposamen batu ditu proiektuan.

Zertan datza Mañariko Garapenerako Turismo Proiektua? Mañaria inguruagatik da ezaguna, batez ere; naturaz inguratuta dago. Mendira doazenak hurbiltzen dira, baina, ostera egin, eta joan egiten dira, herrian geratu gabe. Hainbat gauza ditugu erakusteko, baina, ustiatu gabe. Herrira turismoa erakarri, eta ezagutzera emateko momentua dela ikusi du udalak. Horretarako, turismo plan bat eskatu diote Hontza Museoa Fundazioari.

Mañaria ezagutaraztea da, beraz, helburu nagusia?
Herriaren izena zabaltzea eta ezagutzera ematea, horixe da helburu nagusia.

Etorritako bisitari horiek herrian geratzea lortu gura duzue?
Badaude herria plazara muga-

tzen dela uste dutenak; herriaren izena ere ez dutenak ezagutzen. Urkiola aipatuz kokatzen dute Mañaria. Harrobietako biribilgunetik Urkiolarako biribilgunera da herria askorentzat. Egunerokoa, herrigunean ez dago giro handirik; baserrietan, auzoetan, dago mugimendua. Hala ere, asteburuan, mendira ostera egitera datozenak ere ez dira geratzen, ez dutelako eskaintzarik. Zer ikusi edo zer egin badagoen arren, ez dago behar bezala bideratuta: ez dago turismo bulegorik, informazio punturik. Zelan jakin dute, orduan, Mañariko elizan Bizkaiko barroko estiloko organorik handiena dagoela? Ostalaritza da indartu beharreko beste puntu garrantzitsu bat.

Turismoari begira premiazkoa?
Bazkaria, ogitartekoak edo pin-txoak eskaini ezean, datozen horiek kafetxoa hartu, eta badoaz. Eskaintza gastronomiko bat eman behar da, eta turismoari begira, herriko interes puntuak batu eta informazioa zabaldu. Horretarako, beharrezkoa da informazio puntu bat. Hori guztia bideratzeko, Hontza Museoa

izan daiteke aproposa. Urtebete pasatxo da zabaldu zela, eta nabari da mugimendua; 3.000 lagunek bisitatu dute. Jendea erakarri du. Zergaitik ez aprobetxatu hori herriko beste interes-guneak ere erakusteko.

Bisitariantzat ezezagunak eta erakargarriak diren hainbat baliabide ditu Mañariak?

Bai, hainbat! Askondoko koban aurkitutako paleolito garaiko horma irudiak, marmolezko harrobi zaharrak, Bizkaiko barroko estiloko organorik handiena zentral hidroelektrikoa, bertako fauna eta flora, ibilbide magikoa, ermitak... herriko historia ere hor dago: Evaristo Bustintza ‘Kirikiño’ eta Errose Bustintza idazle ezagunak jaio ziren hemen; harginen herria izan omen zen hau, eta, Mañaritik eroandakoak dira Madrilgo erregetxeko marmolezko 20 zutabeak. Gerediagak eraturako ondare jardunaldietan ere ostalua izandako Galtzadako baserria ikusteko aukera eman zen, eta harritura geratu ziren ikusitakoagaz.

Zein proposamen jaso dituzu?
Besteak beste, Iturrieta ingurua

“*Herriaren izena zabaltzea eta ezagutzera ematea, horixe da helburu nagusia*”

“*Pakete turistikoak eskaintzea da idea, baina, horretarako, prestatu egin behar da herria*”

egokitu, eta merenderoak jartzeta, hainbat hormatan herriko historia irudikatzea, eta herri barruan askotariko bisitariarentzat ibilbide erraz bat sortzea —adibidez, fauna eta flora identifikatuta—. Baita Mañaria, Izurtza eta Durango lotuko lituzkeen bidegorri bat, eta Urkuletako putzua eta ingurua berreskuratzea ere; eta gereziendoak landatzea.

Gereziendoak?

Oso ezaguna zen Mañaria gereziengatik. Asko etortzen ziren gereziak eroatera, eta izen hori berreskuratzea ondo legoke.

Bisita gidatuak egitea ere proposatu duzue.

Mendi ibilbideen inguruko informazioa eskaintzea eta hainbat bisita gidatu egitea ere planteatu da, bai —kobak, ermitak, ibilbide mitologikoa, zerrategia, Etxaburu dorrea, zentral hidroelektrikoa, eliza... —; baita Galtzadako baserrian zegoen ostalua berreskuratzea ere. Pakete turistikoak eskaintzea da ideia, baina, prestatu egin behar da herria. Turismoa kudeatzeko eta informazio puntu egokia izan daiteke Hontza Museoa Fundazioa. Webgune eguneratu eta garbia, eta, ostalaritzaren inplikazioa ere ezinbestekoa da.

Autokarabanentzako gunea sortzea ere proposatu duzue?

Bai, ur zikinak botatzeko eremu bat sortzeko proposamena bota zuten herritar batzuek, eta begi onez ikusi da. Herriaren sarrera eta irteerak seinaleztatzea garrantzitsua dela deritzogu.

Premia zegoen horrelako turismo plan bat garatzeko?

Bai. Adibidez, Urkiola landa garapena elkartearen bidez eman da Mañariari buruzko informazioa. Baina, azaleko informazioa izan da, herri txikia delako eta ez duelako hori guztia gestio-natzeko figura bat. Udalak beti izan du gaia gogoan, baina, egia da bestelako lehentasunak egon direla. Momentua heldu da.

Urkiolako parke naturala da Mañariaren ‘helbide-txartela’?

Harrobiek kalte handia egin dute, eta askorentzat Mañaria herrigunera mugatzen da. Baina, alboetara, auzoak, mendia, ibilbideak, errekek... daude. Hontza Museoa izan da turismoagaz lotutako pauso hau emateko bidea zabaldu duena.

Luzera begirako proiektua da.

Bai, eta premia eta aurrekontuen arabera gauzatuko da. Ideiak jasota daude, eta herriari bultzada eman behar zaiola argi izanda, ahal den neurrian, gauzatuko direla uste du udalak.

Herriaren garapenean eragina izango du?

Herri moduan garatu gura bada, beharrezkoa da. Ahalegina egin behar da, eta oreka bat lortu, herriaren izaera galdu gabe.

Leopoldo Zugaza | Kultur eragilea | Durango, 1932



Txetxu Berruezo

“Jakín-min falta da, gaur egun, kulturaren gaitzik handiena”

Sabino Arana saria eman diote Zugazari, kultur arloan urteetan egindako lanagatik

► KULTURGINTZA I.E.

Zelan joan zen Bilboko Arriaga-ko domekako ekitaldia?

Behar den bezalakoa izan zen: serioa eta zorrotza. Lagunek ere esan didate gustu handiz egindako ekitaldia izan zela, oso ondo antolatutako. Hainbat saridun

nek egin zituzten diskurtsoak ere nabarmentzekoak iruditu zitzaizkidan: errefuxiatuen inguruan berba egin zuenarena, kasurako. Erabat bidegabea da gai horretan gertatzen ari dena: geu ere errefuxiatu izan ginela ahaztu dugula dirudi!

Kulturak laiariak behar dituela esan zenuen zuk zure diskurtsoan. Zer esan nahi zenuen?

Duela 60 urte baino gehiagotik esaten dihardudana: lan ikaragarria dugula kultur arloan egiteke. Euskal Herrian ez dugu zerbitzu kulturalik eduki orain

gutxi arte: nik 18 urte nituenean, 1948an, Durangon ez zegoen liburategirik. Gure herrietako liburategiak 80ko hamarkadaz geroztik zabaldurikoak dira. Ez daukagu zerbitzu kulturalak erabiltzeko tradizioz gurean. Asko daukagu egiteko, eta esango nuke ez goazela bide onetik. Orain asmatu duten hezkuntza sistemak ez du laguntzen, esaterako: Historia eta filosofia curriculumetik kanpo uzten duen sistema batean ezin dugu espero Nietzsche edo Kant-en parekorik sortzerik. Frontoirik bako herrian pilotariak espero izatea bezalakoa litzateke.

Duela 40 urte ez bezala, baina, Durangaldeko herri denetan daukagu liburutegia, esaterako.

Bai. Baina sariketa egunean eman nuen beste datu bat esango dizut: 2014an EAEko liburutegien %27,8 itxi zen. Norantza goazen adierazten du horrek, nire ustez: kutzazain automatikotik dirua zelan atera, badi-rudi egun hori dela arduratzen gaituen jakintza bakarra! Egia da lan handia egin dela, baina erroka handiak dauzkagu.

Askoren kezka da, egun, espazioak eta aukerak izan baditugun arren, herritarrengandik urrun daudela. Hurbilpen hori lortzea da erronketako bat?

Badakizu zergatik ez dagoen pilotaririk Kongon? Ba, frontoirik ez dagoelako! Ez genuke ulertuko norbaitek aspirina eskatu arte farmaziarik ez zabaltzea, ezta? Zerbitzu hori eskaintzen

da, eta behar duen erabiltzailea joango da zerbitzua baliatzera, beharra daukanean. Nik ez dut trenea hartzen, baina badago zerbitzu bat. Berdin kulturagaz: eskaini beharra dago zerbitzua. Gero, beste kontu bat da hori zelan gizarteratu.

Kultura arloan ere, orain 50 urte baino pasiboagoak gara?

Ez dakit. Uste dut, orain 50 urte geneukan gauzarik inportanteena etorkizunerako ilusioa zela. Ez dut esango gaur egun ilusiorik ez dagoenik, baina bai, lausotu egin dela, zelanbait. Horren arrazoiak aztertzea soziologo eta filosofoentzako gaia da, oso diagnostiko zaileko kontua. Uste dut jakin-min falta dela, gaur egun, kulturaren gaitzik handiena: oinarri-oinarrizkoa da jakin-mina kulturaren munduan.

Euskal kulturaren giltzarriak izan diren ekimenak bultzatu dituzu, euskaraz mintzatu barik. Zer harreman duzu euskaragaz?

Aita bertakoa nuen, al baitari euskalduna, baina ama asturiarra zen, eta etxeko hizkuntza gaztelania genuen. Frankismo-ko urte luzetan, gainera, zekiten askok ere ez zerabilten euskara: hainbat lagun euskaldun nukan Durangon, baina ez nekien euskara bazekitela, diktadura amaitzean euskaraz egiten entzun arte. Emaztea eta ni *make-toak* gara, ez dakigu euskaraz, baina euskaraz dakiten zortzi biloba ditugu. Oso kontuan hartzekoa da eboluzio hori. Hizkuntzak kohesionatzen du herria.

Urteetako esperientziatik jasotako jakintza partekatze beharra

Bere kultur arloko esperientzia gazteagoentzat baliagarri izatea gura du



Leopoldo Zugaza, Sabino Aranaren irudiari begira.

“Azkar uzteko itxura” emateak, jendeak “begira hau, badator bere predikua egitera” esateak, ikaritzen duela dio Leopoldo Zugazak. Baina, kulturari loturiko bere berbeta entzuten duena, laster ohartzen da esaten duenaren oinarria esperientzia zabal eta benetakoa dela: kultur munduari loturiko lanean eman dituen urteetako esperientziatik ikasitakoa.

Zugazak berak azaldu duenez, “Julio Caro, Jose Miguel Barandiaran, edo Manuel Lekuonagandik ikasteko aukera eduki genuen, eta eurengandik jasotakoa ezin dugu geuretzat

gorde: transmititzeko beharra sentitzen dut”. Entzuleak esandakoa kontuan hartuko duen ala ez, hori beste kontu bat izango dela badakiela aitortu du durangarrak.

Sabino Arana Fundazioak joan zen domekan eman zion saria jasotzeko ekitaldian, kulturak “laiariak” behar dituela esan zuenean bezala, solasaldi honetan zehar ere, behin baino gehiagotan egin du kulturaren eta baratzegintzaren arteko paralelismoa Zugazak: “Lantatu ezker, seguru egon hazi batzuek emango dutela fruitua!”.

Antzinako musikaren inguruko ikerkuntzan diharduen Ander Berrojalbiz durangarra aipatu du Zugazak, harena bezalako lanean diharduen jendea babestu beharra dagoela aldarrikatzeko. Eredugarri deritzo Berrojalbiz jardunari:

“Pozgarria da laiari bat gehiagoko daukagula jakitea!”.

Bere bizitza Durangora joan-etorrian egin duela dio, ezin duela herriko kultur egoeraren inguruko iritzi zehatzik eman. Baina, jakinaren gainean dago, esaterako, Arte eta Historia museoan ematen dituzten ikastaroen matrikulazio epea zabalik dagoela. Hain zuzen, besteren artean, Leopoldo Zugazaren ekimena izan zen ikastaro horiek antolatu dituen Durangoko Museoa sortzea.

Gerediaga Elkartearen eta Durangoko Azokaren sorreran ere parte hartu zuen Zugazak. Gogora ekarri du Durangoko Landako inguru guztiari eragiten zion autobidearen proiektuaren kontra Gerediagak egin zuen lana, edo baita, Amankomunazgoaren sorreran egindako ekarpenak ere.

De La Purissima, Elorrion: jazz eta kuplea, musika eta antzerkia

Cabaret kutsuko kontzertua egongo da, gaur, Elorrioko Arriolan ikusgai

> MUSIKA Itsaso Esteban Julia de Castro abeslari eta aktorea eta Miguel Rodríguez kontrabaxista elkartzetik sorturiko proiektu eklektikoa da De La Purissima. Gaur gauerako, Elorrioko Arriola antzokian eskaini duten aukera berezia da talde horren kontzertua gozatzea.

Umorea eta probokazioa dira zuzeneko musika eta antzerkia uztartzen dituen proiektu honen ezaugarriak

Zuzeneko musika eta antzerkia, hainbat generoren nahasketa da Madrilen 2010. urtean sortutako taldeak eskainiko duena. Baita cabareta ere. Umorea, probokazioa eta ikusleekin jokoan aritzea ere badira De

La Purissima taldearen ikusluzunaren beste ezaugarrietako batzuk. Gaur, 22:00etan, Elorrioko Arriolan eskainiko duten emanaldi honetan, Enrique

Gimenoren zuzendaritzapean jardungo dira taldeko lau musikariak: De Castro abeslariagaz eta Rodríguez kontrabaxistagaz batera, Gonzalo Maestre



Julia de Castro abeslari eta aktorea eta Migel Rodríguez kontrabaxistak sortu zuten De La Purissima.

bateria-jotzailea eta Jorge Vera pianista ariko dira.

Jazz musikaren inprobisazio saio batean ezagutu ei zuten taldekideek elkar, eta jazz, musika klasikoa eta kuplea maite dituzte. Laukote gisa kaleratu duten lehenengo diskoa, *Virgen* izenekoa aurkeztuko dute Elorrion. Harreman sentimental zein sexualen inguruko diskoko hamaika kantak eskainiko dizkiote publiko elorriarrari.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berberoko kidea



Corpore sano Vs. mens sana

Hotz dago, iluntzeak dakarrena. PFCdun elastiko termikoa eta mailak jantzi ditu, markadun zapatilak lotu eta badoa. Astiro hasi da, gaur entzun eta irakurritako batzuk mamurtzeko izaten da eguneko tarte hau. Bakarrik egoteko ere bai. Ihesi ez ete dabilen, auzoko eta inguruko arazoekiko ardura gutxi izatea ezkutatzeko edo beraietatik aldentzeko. Izerdiaren bustia sentitu orduko, hasi da hausnarrean. Lehen kilometroa bete duela diotso pantailatxoak; eguneko txio zirrargarriek belarriak zultzen dizkiote, eta une batez, pentsatu du benetan doala ihesean, gero eta azkarrago, gero eta urrunago. Erritmoa bizitu du, eskumuturreko monitorea ez dio berri onik eman, bihotz taupadak ohi baino arinago ari zaizkio burutapen bakoitzaren eraginpean.

Arnasestuka iritsi da etxeko atarte ingurura, blai. Pultsometroari begiratu dio datu pozgarriak erakutsiko dizkiolakoan; tira. Hustu egin da, bukatu egin da ihesaldi obsesiboa; zeraman zama astunetik libre sentitu da orain, bere mundu txikian diren buru-hauste behinenak, isuritako izerdiaz batera ezabatu izan balira bezala. Gorputzari emandako astindutik bere onera itzuli denean, ordenagailuko aplikazioan konektatu du neurgailua korrikaldiaren grafikoa ikusi eta aztertzeko. Kontxo!, indarrean nabil, bere artean. Mugikor keinukariak alabaren andereñoarekin batzarra zuela gogorazti dio; pena ezin joan izana.

Hileko dokumentalagaz hitzordua, eguaztenean

‘Zer egin mundua aldatzeko’ filma emango dute

> ZINEMA I. E.

Otsailaren 10ean, eguaztenean, ohi bezala, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean izango da Hileko Dokumentalaren emanaldia. Ziklo horren barruan izaten den bezala, doako emanaldia izango da. Jerry Rothwell zuzendariak idatzirik gidioan oinarriturik, 2014. urtean Canada eta Erresuma Batuan ekoiztutako lana da, otsailean, Hilean Behin zikloan emango dutena. Greenpeace talde ekologistaren hastapenak dira *Zer egin mundua aldatzeko* dokumentalaren kontakizunaren ardatza: 1971n, bonba atomikoa probatzeko Nixonen gobernua Alaskan egiten

hasi zen saioak geldiarazteko abiatu zuten ekimena da dokumentalaren abiapuntua: ekologista talde horrek arrantzaontzi zahar batean abiatu zuen borroka kontakizuna.

Aldaketa sozialak lortzeko, irudiek eta komunikabideek duten indarrean sinesten zuen Greenpeace elkartearen jatorrian egon zen talde horrek.

Greenpeace talde ekologistaren hastapenak kontatzen ditu ‘Zer egin mundua aldatzeko’ filmak

Estanconaren eskultura eta pintura, Zornotzan

Juan Mari Estancona zornotzarraren lana dago, otsailaren 26ra arte, Zelaieta zentroan ikusgai

> ERAKUSKETA I. E.

Juan Mari Estancona zornotzarraren erakusketa dago, otsailaren 1etik 26ra, Zornotzako Zelaieta zentroko erakusketa aretoan ikusgai. Bere eskultura eta margolanak bildu ditu artista autodidakta zornotzarrak bere herriko erakusketa aretoan.

Egileak berak azpimarratu duenez, modu autodidaktan, eta askatasunez jardunez egindako lanak dira erakusketakoak: gorputzak eta buruak eskatzen diotenari kasu eginez sorturikoa da erakusketako obra.

Zura lantzen du Juan Mari Estanconak bere eskultura la-

nak egiteko, eta pintura akrilikoa baliatuz, kolorea ere eman ohi die bere piezei.

Zurezko mihise gainean egindakoak dira Juan Mari Estanconaren koadroak ere: teknika mistoa baliatuz egindakoak. Berezitasun moduan, ize eztenak ere baliatzen ditu bere koadroetan.

Zura lantzen du Estanconak eskulturak egiteko; zurezko mihise gainean egindakoak dira bere koadroak ere

Latente
Paula Quintana

Otsailaren 13an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEAN
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

OTSAILAK 5
21:30etan
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

OTSAILAK 7
18:30ean
AIKO ERROMERIA
DANTZA

OTSAILAK 11
19:00etan
MENDIAK HURBILDUZ
BERRALDIA

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero

Mesoterapia bidezko aurpegi tratamendu hidratatzailea

Zer da mesoterapia birtuala?

Fotoelektroporazioa deitzen den teknologia berritzaile baten oinarritzen da. Korranteen bidez azalaren mikroporoak zabaltzen ditu. Horrela, produktuen osagaiak sakonago sartzen dira. Ez du txertorik behar, ez da erasokorra, eta ez du minik egiten.

Zergatik hidratatu behar dugu orain aurpegiko azala?

Neguan, eta urteko sasoi hotzetan, gure azala indar handiagoz deshidratatzen delako. Aurpegia bistan egoten da, eta hotzaren eraginak igartzen dira. Berogailuek ekarritako tenperatura aldaketek ere ez dute laguntzen.

Ze onura dauka?

Azido hialuronikoak azala urez kargatzen du, eta barrutik betetzen du.

- Deshidratazioak eragindako zimurak kentzen ditu.
- Tenkatasuna ezabatzen du, eta xamurtasuna eta erosotasuna eskaintzen ditu.

Tratamenduak hauxe barnebiltzen du:

- Esfoliazioa
- Serum hidratatzailea "MESOTERAPIA" aplikatuta
- Masaje erlaxatzailea aurpegian, saman eta paparrean
- Azido hialuronikoaren maskaratxoa.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen
63€
orain
31,50€

.. NEGURAKO APROPOSA ..

%50eko deskontua
Aurpegiko tratamendu hidratatzailean mesoterapiaren bidez

Otsailaren 1etik 29ra

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Senegalen saritu dute Beat Salad Records-ek editaturiko PPSren diskoa.



Senegalgo Alien Zik talde ezaguneko kide den Rex-T hip-hoplariaren bakarkako lehenengo diskoa kaleratu dute.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Afrikan sorturiko rapa Euskal Herrian zabaltzeko, orain urte batzuk abiatutako bidean darrai Beat Salad Records Durangoko ekoiztetxe autogestionatuak. Senegalgo eszenan ezaguna den Alien Zik taldeko Rex-T hip-hoplariaren lana editatu dute, oraingoan, *Afrika Style* izenburuko diskoa. Arkaitz Cayado *Itsua* Beat Salad Record-eko kideak sortutako musika oinarri duten kantak dira Rex-T-renak, Afrikako erritmo eta melodietan oinarrituriko sorkuntzak.

Rex-T hip-hoplariak bere lehenengo disko horretan kantatzen dituen berbak, aldiz, Afri-

Rex-T senegaldarraren lehenengo diskoa, Beat Salad Records durangarren eskutik

Momentuz, Senegalen dago eskuragai Rex-T-ren 'Afrika style', baina hemen ere zabaltzeko asmoa dute

kak jasaten duen neokolonialismoaren eta balio galeraren kritika dira. Maitasunaz, eta umeen eskubideak babestu beharraz ere dihardu, besteak beste.

Arkaitz Cayado *Itsua* azaldu duenez, Rex-T-ren *Afrika Style* lana, momentuz, ez dago hemen eskuragarri, baina asmoa dute hemen ere zabaltzeko.

Albiste pozgarriekin hasi dute Beat Salad Records-eko Arkaitz Cayado *Itsua*-k eta Omar Thior *Omzo* kideak urtea. Hainbat proiektu berri plazaratu eta beste hainbat eskuartean izatea nahikoa ez, eta, sari bat ere jaso dute. Iaz editatu zuten PPS The Ghost Writah hip-hoplari senegaldarraren *Xaatim Ak Kallá-*

ma diskoa aukeratu baitute Senegalgo 2015. urteko diskorik onena, Galsen Hip Hop Awards sariketan. Senegalen sortu zuten proiektu hori, AEBetako musikariekin grabatu, eta Durangoko ekoiztetxeagaz editatu zuten. Senegalgo raparen munduan izen handia da PPS The Ghost Writah-rena.

Arkaitz Cayado *Itsua* durangarrak eta Omar Thior *Omzo* Beat Salad proiektuko kide senegaldar-euskaldunak abiatutako ekimenak, Durangoko ekoiztetxearen eta Senegalgo hainbat artistaren arteko hartu-eman oparoa sortu du: herrialde hartako rap eszenako artista ezagunen lanak editatu dituzte.

Durangaldeko lau taldek joko dute, bihar, Abadiñoko Gaztetxean

Euren lehenengo kontzertua eskainiko dute, LRR eta Pol&Cia musika taldeek

> KONTZERTUAK I.E.

Lehenengo antolatu dute ACAB R&R musika jaialdia, San Blaseta, Abadiñoko Gaztetxean. 17:30ean hasita, hainbat orduz luzatuko da San Blaseta zuzeneko musika eskaintza, bihar, otsailaren 6an.

Abadiñoko eta Durangaldeko hainbat musika talde gonbidatu dituzte zuzenean aritzera: Nevadah, Baghdad, LRR eta Pol&Cia ariko dira, besteak beste. Worth It berriztarren izena ere agertzen zen jaialdiaren kartelean, baina lan kontuak direla medio, azkenean ezingo dutela parte hartu eman dute jakitera.

Lehenengo kontzertuak

Abadiñoko Udalaren Muntzaratzeko entsegu lokaletan sorturiko LRR eta Pol&Cia taldeen estreinako kontzertuak hartuko ditu, gainera, Gaztetxeko biharko musika jaialdi horrek. La Polla Records taldearen bertsioak egiten ditu Abadiñoko eta Iurretako kideek osaturiko

LRR taldeak (LaRepolla Records). Lehen, Durangaldeko beste hainbat taldetan ibilitako Abadiño eta Durangoko kideek martxan ipini duten musika talde berria da, bestalde, Pol&Cia.

Durangaldeko hainbat herri-tako kideek orain urtebete pasatxo osatu zuten Nevadah taldeak ere joko du biharko jaialdian. Rock & rollaren barrukoak, baina blues zein punk ukitukoak

dira Nevadah-k orain arte sorturiko bederatzi kantak. Taldeki-deek sorturiko bederatzi kanta horiek, eta bertsioak ere joko dituzte, Abadiñon.

Lehenago Durangaldeko hainbat taldetan ibilitako bost musikaririk sorturiko Baghdad taldea, eta Larrabetzun sorturiko The Lasai taldea ere ariko dira ACAB R&R jaialdian.

Azken urteetan irtenarazteak jasan dituzten Kukutza, Kortxoenea, eta Tolosako gaz-

tetxea gogoan hartuta antolatu dute ACAB R&R jaialdiaren lehenengo edizioa, Abadiñoko Gaztetxean. Kide horiei elkartasuna agertu, eta "poliziaren jazarpena" salatuko dute.

Baghdad durangarrek eta Larrabetzuko The Lasai taldeak ere joko dute Gaztetxean



Duela urtebete pasatxo Durangaldeko hainbat kidek sortu zuten Nevadah taldea ere gonbidatu dute, bihar, Abadiñon aritzera.

Iker Arroitauregi eta film laburrek itxiko dute Mendiak Hurbilduz zikloa

Aurten, mendiari lotutako zortzi film labur aurkeztu dituzte otsailaren 11n egingo duten lehiaketara



Iaz, Favresse anaiek zuzeneko musika ere eskaini zuten; eskuman, Iker Arroitauregi eskalatzen.

> MENDIA Joseba Derteano Mendiari eta han dabilzan abenturazaleei tokia egiten die urtero urtero Mendiak Hurbilduz zikloak, Plateruena kafe antzokian. Dokumentalen eta protagonisten euren testigantzen bidez, mundu zabaleko abenturak eroso eserita ezagutzeko aukera eskaintzen dute.

Atzo hasi zuten zikloa Txus Ruiz de Erentxun piraguistaren eta Luisi Egiluz mendizalearen emanaldi banagaz, eta, datorren ostegunean, 19:00etan, bigarren saioa egingo dute film laburren lehiaketagaz eta Iker Arroitauregiaren dokumentalagaz.

Film laburren lehiaketak hirugarren aldia egingo du aur-

ten, eta zortzi lan aurkeztuko dituzte. Gehienak Durangaldeko lagunak dira, eta Bilbotik eta Donostiatik ere bana aurkeztuko dituzte: “Urterik urtera ekimena zabaltzen ari da, eta pozgarria da Donostiako batek ere parte hartzea”, adierazi du Jon Kepa Berasaluze Mendiak Hurbilduzeko antolatzaileetako

batek. Iaz, Ixone Aromaren lanak irabazi zuen, eta aurten ere parte hartuko du.

Film labur denak erakutsi ostean, hiru sari banatuko dituzte. Irabazleak Durangoko Atxarte dendan mendi materialean gastatzeko 150 euroko txartela jasoko du. Bigarren sariak Mercasport dendarako beste 150 euro jasoko ditu. Hirugarren saridunak Ur Nomade enpresagaz asteburu pasa irabaziko du.

Arrakastadun ekimena

Mendiak Hurbilduz ekimenak entzute handia lortu du denbora gutxian, eta mendizaleak “zain egoten diren hitzordua” da: “Jendeak kalean galdetu egiten dit nortzuk etorriko diren edo zer antolatzen gabiltzan galdeztzeko. Durangaldetik kanpoko jendea ere etortzen da. Interesa sortzen duela ikusten dugu, eta pozik gaude”, dio Berasaluzek.

Iaz, Favresse anaiekin ekimenak 450 lagun batu zituen: “Hitzaldiaren ostean zuzeneko musika eskaini zuten Plateruenean eta jai-giroak arratsaldean ez ezik, gau osoan ere irautzen”.

Esaterako, oraindik igo barik dauden blokeak lehenengo igotzeko aukerak motibatu egiten nau. Eta are motibagarriagoa da eskalada bide horiek ikusgarriak edo politak direla konturatzen zarenean. Aurreko prozesua ere gustatzen zait; bidea garbitu eta nondik igo daitekeen aztertzea.

Oraindik joateko aukerarik izan ez duzun zein eskalada gunetara joatea gustatuko litzazuke?

Oraindik egon ez naizen toki asko daude. Amerikako Estatu Batuetan, Australian, Zeelanda Berrian... urrun daude eta kontu ekonomikoengatik ez da erraza, baina helduko da hori ere.

Atxarte inguruan ibili zara eskalatzen?

Bai. Ni eskalatzen hasi nintzeanean, nire belaunaldiko jendea askotan ibiltzen zen Atxarten eskalatzen, eta, jakina, neu ere sarritan ibilitakoa naiz han, beste toki askotan moduan.

Nissan Gaursak, goranzko bidean, Uribealdea hartuko du, bihar

> ERRUGBIA J.D.

Durango Nissan Gaursa errugbi taldea bolada onean dago, eta goranzko joera horri jarraipena eman gura dio. Aurrean aurreio zaila izango du: Ohorezko B Mailako laugarren postuan dagoen Uribealdea. Partidua bihar, 17:00etan hasiko da.

Azken lau partiduetatik hiru irabazita, gorantz egin du Oskar Astarloaren taldeak

Oskar Astarloaren gizonak konfiantzaz dabilta azken lau partiduetatik hiru irabazita. Azkenengo bietan Quesos Entrepinares —azken sailkatua— eta Eibar menderatu dituzte, eta seigarren kokatu dira zortzina garaipen eta porrotekin.

Tabirako Baqué beste denen gaineratik, lider

> SASKIBALOA J.D.

Joan zen asteburuan, Leioak eta Tabirako Baquék elkarren kontra jokatu zuten partiduan lidertza izan zuten jokoan, ha maikana garaipenekin berdinduta zeudelako lehen postuan. Leioaren kantxan jokatutako partidu borrokatu hartan, durangarrak nagusitu ziren (50-56), eta orain, Euskadiko nazional Mailan lider bakarrak dira.

Leioari irabazi, eta lider bakar kokatuta, bolada onean dagoen Lagunak hartuko dute etzi, Landakon

Domekan, 12:00etan, goraka datorren Lagunak Lakitaren kontra jokatuko dute, Landako kiroldegian. Barañaingo (Nafarroa) taldeak azken hamar partiduetatik bederatzi irabazi ditu, eta durangarregandik garaipen bira dago.

Lehen itzuliko partiduan, antzerako maila duten taldeak direla erakutsi zuten: orduan, Tabirako Baquék hiru puntu-gatik irabazi zuen Nafarroan.



Iker Arroitauregi
Bilbo, 1977

Munduko edozein bazterretan zaudela, eskalatu daitekeen pareta edo arroka erakargarriren bat ikusiz gero, begiratu alboetara, Iker Arroitauregi ez da eta urrun ibiliko. Blokeko eskaladan espezialista den bilbotarra erronkarik erronka ibiltzen da, gaur hemen eta bihar han. Bere lorpen eta abenturak jasotzen dituen ‘Harri Aroa’ dokumentala Plateruenean erakutsiko du, datorren egunean.

Zer erakusten du Harri Aroa dokumentalak?

Azken bost bat urteetan egin ditudan eskaladarik aipagarrienak jasotzen ditu. Munduan zehar egin ditudan bidaiak, eta horietan eskalatu ditudan blokerik ikusgarrienak erakusten ditu.

Estatukoak zein mundu osokoak.

Bai, hori da. Hegoafrikako Lurmutur Hiritik gertu dagoen Rocklands-en —Boulderra praktikatzeko ingurune eza-guna— Frantziako Fontainebleau-n, Madrilén, Albarracinen, Galizian... Munduan toki asko daude eskalatzeko.

Mendiak Hurbilduz ekimena bisitatuko duzun lehenengo aldia izango da?

Bai. Aurten, lehenengo bider joango naiz. Aurretik entzunda neukan, lagun batzuek esana zidaten, baina egon barik nago. Beti harrapatu izan nau edo bidaiaren batean edo kanpoan. Beraz, pozik nago aurten bertan parte hartzeko aukera eskaini didatelako.

“Oraindik igo barik dauden blokeak lehenengo igotzeko aukerak motibatu egiten nau”

“Aurrerantzean, orain arte eraman dudana erritmoari eta mailari eustea da helburua”


Beti zabilta handik hona, bidaiari, eta paretak eskalatzen. Zer proiektu duzu orain eskuartean?

Nire helburua, proiektu zehatz bat baino, aurrerantzean ere orain arte eraman dudana erritmoari eustea da. Ahalik mailarik handienera toki berriak deskubritzen eta bloke berriak irekitzen jarraitu nahi dut.

Zer da arroka bat eskalatzera motibatzen zaituena?

San Blas trinkete txapelketako finala, bihar, Antxia eta Gonzalez protagonista direla

Ipar Euskal Herriko Elgart eta Amulet pilotariak izango dituzte aurkari, Tornosolo trinketean



Ander Antxiak bere ohiko maila erregularra eskaini zuen finalerdietan.

> TRINKETA Joseba Derteano San Blas txapelketako finalak goi mailako bikote bi elkarren aurka jarriko ditu, bihar, 17:00etatik aurrera, Tornosolo trinketean. Horieta bat Durangaldekoa da, Ander Antxia

abadiñarrak eta Mikel Gonzalez berriztarrak osatutakoa. Gaur egun edonori aurre egiteko kapaz diren bikotea osatzen dute. Elgart eta Amulet, berriz, Ipar Euskal Herriko txapelketarik onenetan zaildutako pilotariak

dira, eta finalerdietan itxura sendoa eman zuten.

Joan zen domekan, Tornosolo lepo bete zen finalerdiak ikus-teko. Augusto Ibañez Titin III.ak lustrea erantsi zion kalitateari, eta Trizioko pilotari handiaren

parte-hartzeak erakarrita, trinketea txuntxurreraino bete zen. Baina, izanak gaina hartu zion izenari. Elgart eta Amulet erraz nagusitu zitzaizkien Titin III.ari eta Ugarteri: 40-20. Errioxako pilotaria saiatu zen, baina, gaur egun, Abadiñora ekartzen dituzten pilotariak kontuan hartuta, gogo baido gehiago behar da sanblasetako finalera sailkatzeko. Lekua aurkitu ezinik ibili zen Titin, eta Ugarteri lana pilatu zitzaion atzean. Azkenean, irabazleek markagailuan bi-koiztu egin zituzten galtzaileak.

Bigarren finalerdian, markagailuak ez du islatzen kan-txan ikusitakoa: 40-25. Garateak eta Aspuru gerra eman zuten partidu erdira arte. Aspuru indartsu eta Garatea seguru aritu ziren. Bigarren erdian, Gonzalezek min handia egin zuen sakez, eta Antxia beti bezain erregular aritu zen. Aspuru, aldiz, lehen erdiko ahalegin fisikoa bigarrenean ordaindu zuen.

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto-futbola



Eskerrik asko, neskak

Durangaldearentzat ez da urte ona izaten ari gizonetan. Eskerrak emakumeak Bizkaiko areto-futbolearen agintzen ari diren, Sasikoa lehen postuan egonkortuta, eta oraindino partidurik galdu barik, eta Elorrioko Buskantza meritu handiko zazpigarren postuan.

Kadete mailan, ordezkari bakarra den Sasikoa laugarren dago, eta ia segurtatuta dauka azken faserako txartela. Gazte mailako taldeak ere ondo dabilta (3. Sasikoa, 4. Mallabia eta 6. Elorrio), eta bai Sasikoak eta bai Mallabiak igotzeko aukerak dituzte.

Afizionatu mailako gizonak, aldiz, eskas dabilta oro har. Presion Break da maila ematen ari den bakarra, eta hasiera-hasieratik, Hirugarren Mailako txapeldun izateko borroka betean dabil. Berriztarrek Bigarren B Mailarako igoera lortu dezakete, eta lorpen itzela litzateke nazional mailako kategorietan debutaria den talde batentzat. Kontrara, Sasikoa eta Elorrioko aurreikuspenetatik behera dabilta; 9. Elorrio eta, arrisku postuan, 14. tokian, durangarrak. Euskal Ligan Mallabia (9), Elorrio B (13) eta Sasikoa B (14) ez dabilta denboraldi ona egiten.

Erregional mailetan, eskualdeko zortzi taldeetatik batere ez dago goiko postuetan. Ezta txapelketa batean ere. Hurrengo batean sakonduko dut talde hauetan; ea datozen jardunaldietan gorantz egiten duten.

*Erredakzioan itzulia

Urkiolan amaituko da Birako bigarren etapa

Emakumeen Birako etapak erabakita daude

> TXIRRINDULARITZA J.D. Apirilaren 13tik 17ra lehiatuko duten Emakumeen Birak dagoeneko finkatu du ibilbidea. Iurretan hasi, eta Portugaleten amaituko da, bost egun eta 374 kilometroren ostean.

Erlojupeko atarikoak harrera ona izan zuen iaz, eta, aurrean, errepikatzea erabaki dute: 3,3 km, Iurretatik irten barik. Lehenengo etapa (76 km) Eskoriatzan hasi eta amaituko da. Untzilla (3. maila) eta Arlaban (2) mendateek lehenengo

borroka eta erasoak ekarriko dituzte. Bigarren etapa Urkiola gainean amaituko da. Etxarri Aranatzetik datozela (109.5 km), Otxandiotik, alderik leunenetik igoko dira Urkiola gainera.

Berriatuan hasi eta amaituko den etapan (109 km), hiru bider igaroko dute Milloi gaina. Portugaleteko azken etapagaz amaiera gogorra izango du Birak. Bigarren mailako Las Muñecas mendateaz gainera, azken hiru kilometroak gorantz joango dira.

Txomin Marañon Euskadiko azpitxapeldun krosean

23 urtez azpiko mailan bigarren amaitu zuen

> KROSA J.D. Donostiako hipodromoan jokatutako Euskadiko Kros Txapelketan, Txomin Marañon (Durangaldea Running) durangarra txapeldunorde geratu zen, 23 urtez azpiko lasterketan: "Lesioaren ostean, sentsazioak errekuperatzen nabil, eta pozik nago bigarren eginda. Oraindik lana geratzen da, baina bete dugu helburua", adierazi du Marañonek sare sozialetan.

Nagusietan, Durango Kirol Taldeak taldekako sailkapena

irabazi zuen. Ander Hilerak laugarren amaitzea lortu zuen gazte mailan, eta postu horrek Espainiako Kros Txapelketara gerturatzen du.

Bidezabalek taldekako txapelketa irabazi zuen, gazte zein junior mailetan. Gazteetan, Aitana Merino (5. tokian), Uxue Zuazua (8) eta Olaia Lekunberriren (11) lanari esker lortu zuen txapela. Juniorretan, Nerea Costa (3), Garazi Lekunberri (8) eta Jone Ramirez (11) nabarmendu ziren.

Bulegorako ziguilak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Arriike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PSIKOLOGIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

